

Ebazpena: R112/2023
Espedientea: E011/2023

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 22a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabakitzen dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Autonomietako eta Tokiko Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiaren (ATFIN) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa, ebazteko LPSCC sozietateak 2021eko abuztuaren 17an egindako kontsulta, lanagatik eta lokalen errentamenduengatik 2021ean egin behar dituen atxikipenak ordainarazteko araudiaren eta eskumenaren gainean. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan ari da izapidetzen, 11/2023 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- Egoitza soziala Badalonan (Bartzelona) daukan LPSCCk zerga-kontsulta egin zion BFARI 2021eko abuztuaren 17an.

Adierazten zuen 2020ko abuztuaren 1etik ematen duela Bizkaiko lurraldean anbulantzia bidezko garraio-zerbitzu sanitarioa. Aintzat harturik 2020an 10.000.000 eurotik gorako eragiketa-bolumena izan zuela eta horien % 30 Bizkaian eta Araban gauzatu zituela (gainerako % 70 lurralde erkidean), eta zenbatetsita 2021ean bere eragiketen % 50 foru-lurraldean izango zirela, galdetzen zuen araudiari eta jarduerari loturik foru-lurraldean zituen lan-etekinengatik eta alokatuta zituen lokalengatik zegozkion atxikipenak ordainarazteko eskumenari buruz.

Horrez gain, BEZari eta sozietateen gaineko zergari buruzko araudiaz eta ordainarazteko eskumenaz galdetzen zuen.

2.- Une horretatik aurrera, ATFIN eta Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa ez ziren gai izan erantzun bat adosteko, zergapekoari beharrezko segurtasun juridikoa eskaintze aldera, nahiz eta bat zetozen BEZari eta sozietateen gaineko zergari buruzko erantzunean eta atxikipenei buruzko erantzunaren funtsean.

3.- Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan desadostasunak jarraitu zuenez, Arbitraje Batzordeari helarazi zitzaion.

4.- Gatazka prozedura laburtuaren arauen bidez izapidetu da, Ekonomia Itunaren 68.Bi artikuluan xedatutakoaren arabera.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Ekonomia Itunaren 64. artikulua funtzio hau esleitzen dio Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari:

«Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administraziok ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

Bestalde, Ekonomia Itunaren 68. artikulua honako hau dio:

«Bat. Hauek dira ekonomia-itun honetan ezarritako Arbitraje Batzordearen prozedura bereziak: prozedura laburtua, ondorioak zabaltzea eta betearazte-intzidentea.

Bi. Prozedura laburtua aplikatuko da ekonomia-itun honetako 64. artikuluko b) letrako eta 47 ter artikuluko Hiru apartatuko kasuetan.

Kasu horietan, auziak izapidetzeko hilabeteko epean onartu beharko ditu Arbitraje Batzordeak, aurkezten direnetik zenbatzen hasita; hamar eguneko epe komuna emango die ukitutako alderdi guztiei alegazioak egin ditzaten, eta epe hori bukatu eta hilabetean eman beharko du ebazpena».

2.- Zerga-kontsultaren funtsari buruz.

EZKO eta ATFIN ados daude:

- Lan pertsonalaren atxikipenei dagokienez.

Ordainarazteko eskumena zerbitzua ematen den tokiak zehazten du, foru-lurraldea zein Espainiako lurraldea izan, eta, bietan ematen bada, enplegatua atxikita dagoen lantokiak zehazten du.

Ordainarazteko eskumena duen administrazioak bere araudiaren arabera exijituko du.

- Lokalak alokatzeagatiko atxikipenei dagokienez.

Ordainarazteko eskumena eta araudia atxikitzailearen egoitzak zehazten du.

3.- Erantzunaren gaineko desadostasunari buruz.

EZKOn erantzun-proposamenean adierazi zen zer foru-araudi zehatz aplikatu behar zen, Bizkaiko araudia aplikatu beharko balitz.

ATFINen ustez, aplikatu beharreko estatu-araudia ere zehaztu beharko litzateke, araugintza-eskumena Espainiak izango balu.

EZKOk eta BFAk uste dute (gatazkaren planteamenduan), kontsulta BFARI planteatu zaionez, ebazpena ematen duen organoak, jatorriz Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, eskumenaren auzia ebazteaz gain,

aplikatu beharreko Bizkaiko araudia baino ezin duela zehatz aipatu, halakorik aplikatu behar izanez gero.

Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 8. artikulua 39/2015 Legea igortzen du modu osagarrian. Lege horren 88.1 artikuluan xedatzen da ebazpenen espedientetik eratorritako gai guztiak erabakiko direla, alderdiek berariaz planteatu dituzten ala ez kontuan hartu gabe.

Kontuan hartuta Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua kontsulta bera ebazteko eskumena Arbitraje Batzordeari esleitzen diola, ez da inolako mugarik hauteman horrek esplizituki aipa ditzan foru-araudia eta Espainiako araudia. Beraz, ezin zaio aplikatu aipatzen den Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen ustezko muga.

Ondorioz, kontsultatzaileari ez zitzaion beharrezko zen segurtasun juridikoa kendu behar, funtsezkoa ez den desadostasun batengatik. Izan ere, ez du inolako zentzurik kontsulta ebazteko gaitasuna duen organoari, Arbitraje Batzordeari, ez zaiolako inolako mugarik aplikatzen, eta ezin delako berrezarri urte batzuk geroago.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Prozedura artxibatutzat deklaratzeko, bestelako izapiderik egin gabe, gerora bere xedea galdu duelako, zeina baita arrazoizko epean erantzun bat eman ahal

izatea, kontsultatzaileari zerga-betebeharrak betetzeko segurtasun juridikoa emateko.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Autonomietako eta Tokiko Finantzaketarako Idazkaritza Nagusiari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta LPSCCri.